

IGELDOKO **ORRI** INFORMATIBOA



Irekita!



Kaixo herrikide!!!

Azkenean bukatu ziren bai, konfinamendua eta osasun larrialdia eta hemen gabiltza denok egoera honetan kokatu nahian...

Guk, betiko martxari eutsi eta, uztailero bezala, Orri Informatiboa argitaratu dugu nahiz eta oraingoan, festen faltan, argazki montajerik ez izan. Dena dela, ekintza puntual ba-

tzuk egin dira eta argazki batzuk bildu ditugu.

Horrez gain, uztailak albiste eder eta garrantzitsu bat ekarri digu eta horri eskaini nahi izan diogu tarte handi bat ale honetan: Kooperatibak denda zabaldu du!

Ohi bezala, Herri Kontseilua-ren eta herriko beste taldeen azken berriak ere bildu ditugu.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2020	
IGELDOKO EMAITZAK	
EH BILDU	245
EAJ-PNV	146
PP+Cs	32
PSE-EE	26
PODEMOS-IU	13
VOX	8
EQUO BERDEAK	8
PACMA	3
TXURIAK	9
BALIOGABEAK	3
ZENSOA	826
*Abstentzioa %40,32	

Din-din berriz martxan, protokoloarekin

Covid-19ak eragindako osasun larrialdia zela eta, Din-din elkarteak itxita egon zen martxoaren 14tik ekainaren 19ra. Jada martxan dago, baina irekitzeko beharrezkoa zen prebentzio protokolo bat osatzea eta halaxe egin dute Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Donostiako Udalak ezarri dituzten irizpideak jarraituta.

Protokolo horren neurri eta arau nagusienak honakoak dira:

- Mahaien distribuzio berria ezarri da, mahaien arteko tarteak gutxienez 1,5 metrokoa dela ziurtatzeko.
- Eskuragarri jarri dira gel hidroalkoholikoen dosifikagailuak.
- Elkartea 06:00etatik 10:00etara

eta 18:30etik 19:30era itxita egoten da, eguneroko desinfekzio lanak egiteko.

- Erreserba bakoitzeko, kide arduraduna bakarrik sartu daiteke sukaldera eta berak bakarrik erabil ditzake gune komunak (kafetera, labeak, ordenagailua, armairuak eta abar).

- Sukaldean, maskarilaren erabilerara derrigorrezkoa da.

Garbitzaile berria

Elkartetik jakinarazi dutenez, konfinamendu garaian elkarteko garbitzaileak lana uzteko asmoa zuela jakinarazi zion Zuzendaritza Batzordeari. Deialdi zabalagorik egiteko

aukerarik gabe, korreo elektronikoz jakinarazi zieten elkarteko kideei lanpostua libre geratzen zela. Kideekin erlazio zuzena duten bi pertsonak aurkeztu zuten euren burua eta hautagaiekin elkarrizketa izan ostean, Miguel Ruiz de Loizaga izan da aukeratua.

Batzar Nagusia atzeratuta

Nabarmendu dute apirilean egitekoak zirela urteroko Batzar Nagusia, baina osasun larrialdia tarteko, uztailaren 19ra atzeratu dutela.

Bestalde, komuneko obra bukatua dago. Justu, konfinamendua hasi aurretik bukatu zuten.

Aurrematrikula egin eta ikastaro berriak proposatzeko garaia da

Datorren ikasturteari begira, Ieltxoko ikastaroetan aurrematrikula egiteko epea zabalik dago. Oraingoan, Covid-19ak ze eboluzio izango duen eta ze eragin izango duen ikusteko dago (irailean aztertuko da egoera). Momentuz, ikastaroak antolatzeko

asnotan dira. Hori horrela, interesa izanez gero, datuak bidaltzeko edo aurrematrikula orria kultur etxean uzteko azaldu dute (orria etxe guztietara banatu da Orri Informatiboa-rekin batera). Abuztuaren 7a da azken eguna (matrikula irailean egin

beharko da). Bestalde, ikastaro berrien bat proposatu nahi izanez gero, orain dela garaia gogorarazi dute.

Igeldoko weborrian ere deskargatu daiteke orria: igeldo.eus.

Harremanetarako: ieltxokulturrelkarrea@ymail.com.

Desfibriladorea jarri da Eskola Zaharreko arkupetan

Edonork erabiltzeko modukoa da, bihotz-gelditze kasuren bat gertatuz gero. Ikastaro bat ere emango da uztailaren 27an.

Herri Kontseiluak Donostiako Udalari aspalditik egindako eskaera da Igeldon desfibriladore bat jartze-arena. Azkenean, eskaera onartu eta uztailaren 7an jarri zuten aparatura Eskola Zaharreko arkupetan (GPS bidezkoa da). Denen eskura dago eta edonork erabiltzeko modukoa da. Aparatuak berak ematen ditu azalpen guztiak eta horiei jarraitu besterik ez dago.

Anbulantzia iritsi bitartean

Udaleko osasun teknikariek Herri Kontseiluko kideei azaldutakoaren arabera, lehenengo gauza 112ra deitzea da. Eta ambulanzia iritsi bitartean erabili beharko litzateke desfibriladorea. Nahiz eta askori apurua eman, bihotzekoen kasuan, ezer ez egitea baino eraginkorragoa dela zerbait egitea azpimarratu



Eskola Zaharreko arkupetan dago desfibriladorea.

zuten. Gainera, argi utzi zuten aparatu hauekin ezin dela kalterik eragin. Bihotz-gelditzerik ez badago, aparatuak berak detektatzen duela eta ezin da deskargarik eman. Erreanimazioko masajea ere egin beharko litzateke.

izango dute aukera parte hartzeko, nahiz eta partehartzaile kopurua mugatua izan (25 pertsona gehienez). Horretarako, Herri Kontseiluari jakinarazi behar zaio: herrikontseilua@igeldo.eus edo 943313030/606311734.

Ikastaroa uztailaren 27an

Bihotz-gelditzeak nola detektatu eta horien aurrean nola jokatu azaltzeko, ikastaroa eskainiko dute osasun teknikariek Igeldon. Desfibriladorea nola erabili eta erreanimazioko masajeak nola egin irakatsiko dute. Uztailaren 27an izango da (astelehena) eta nahi duten herritarrek

Hegaztiak ikusteko aukera, etxetik

Jon Elozegi igeldotarrak hegaztien zat hainbat jantoki jarri ditu bere etxean eta webcam bitartez retransmititzen ari da etengabe, Urdaibain egiten duten moduan. Weborria sartuz gero (igeldo.eus), ze hegazti mota gerturatzen diren ikusteko aukera dago: txonta arruntak, txantxangorriak, txolarreak, amilotoxak, tarinak... Kakahueteak, eguzkilore pipa gordinak... jartzen dizkie jateko tresneria egokiarekin. Gainera, Urdaibai Bird Centerreko

zuzenekoan aipamena egin diote.

Elozegik azaldu duenez, betidanik interesatu izan zaizkio txoriak eta aspalditik jarri izan dizkie kabiak etxe inguruan, eta baita jantokiak ere. Konfinamendu garaian, berriz, etxeko jardinean duten zuhaitz baten ondoan, webcam bat jarri zuen eta zuzenean internetez zabaltzen ari da. Batez ere, bere gurasoengan pentsatuz jarri zuen, etxetik atera gabe txoriak ikusi zitzaten.

Zakur jabeekin bilera

Zakur kakekin Igeldoko kaxkoan dugun arazoa ikusita, Herri Kontseiluak bilera egitea erabaki du bertako zakur jabeekin. Bilera uztailaren 23an izango da (osteguna) 19:00etan kultur etxean. Denon onurarako eta elkarbizitza on baterako, zakur kakak bildu egin behar direla adierazi du Herri Kontseiluak.



Bukatu da Neguko Pala Txapelketa

II. Neguko Pala Txapelketa amaitu da. Egoerak hala baldintzatuta, aurreikusi baino dezente beranduago bukatu da. Uztailaren 11n, larunbatean, ondorengo bikoteek jokatu zituzten finalak eta emai-

tzak hauexek izan ziren:

1go maila: Loidi-Eskudero 30/Aizpuru-Zabala 21.

2. maila: Endika-Josu 30/Arregi-Urreaga 26.

Neskak: Izagirre-Garate 25/Osa-

Gonzalez 10.

Txapelketa arrakastatsua izan dela azpimarratu dute antolatzaileek. Orotara 42 bikoteek jokatu dute. Lehenengo mailan 6, bigarren mailan 26 eta nesketan 10.

Igeldon Tokiko Entitate Txikia sortzeko, lehenengo pausoak

Igeldon Tokiko Entitate Txikia (Ente Local Menor) sortzeko prozesua zertan den azalduz, ohar bat banatu zuten etxez etxe Herri Kontseiluak eta gaia lantzen ari den batzordeak, ekainean. Ohar horretan adierazi zuten prozesua abiatzeko Donostiako Udaletik lehenengo pausoa ematekoak zirela; hau da, udal mailako batzorde ez-iraunkor bat sortzekotan ziren, alderdi politikoetako ordezkariak osatua. Ekainaren 25ean izandako plenoan aztertu zuten proposamena eta aho batez onar-

tu zuten alderdi politiko guztiek batzorde hori osatzea. Beraz, prozesua abiatua da.

Igeldotik lanean

Etxeetara banatutako oharrean azaldu bezala, gerora etorriko da Udal ordezkariak eta Igeldoko ordezkariak parekatuta egongo diren batzordea osatzea. Batzorde horrek eramango du aurrera prozesu osoa. Bitartean, Herri Kontseiluko kideak eta TET batzordeko kideak lanean ari dira: dokumentuak aztertzeko, Igeldoren

beharrak zerrendatzen, Tokiko Entitate Txikiaren ezaugarriak juridikoki aztertzeko...

Batzordean sartzeko aukera

Gaia lantzen ari den batzordea irekia da eta gogorarazi dute herritarren batek interesa izanez gero, batzordean sartzeko aukera duela. Horretarako, Herri Kontseiluko kideren batekin harremanetan jarri, deitu edo idatzi besterik ez dago: 943313030 / herrikontseilua@igeldo.eus.

Edukiontzi gehiago jartzeko eskaera aztertzen ari da Udala

Momentuz, Gudamendi-Etume bidegurutzean eta Sindikatuaren ondoan gaikako bilketarako edukiontziak jartzeko asmoa azaldu du.

Hondakinak gaika biltzeko, edukiontzi gehiago jartzeko eskaera egin dio Herri Kontseiluak Donostiako Udalari eta eskaera aztertzen ari dira (Arritxulo bideko zabor ontzia kentzekoak zirela eta, gaia lantzen hasi zen Herri Kontseilua). Ekainaren 18an bildu ziren Igeldon Udal teknikariak eta Herri Kontseiluko kideak, eta bertako egoera eta proposamenak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Horren ostean, hainbat proposamen egin dituzte Udaletik: Gudamendi eta Etumeko bidegurutzean bost edukiontziak jartzea, eta Sindikatuaren ondoan edukiontzi horia eta urdina jartzea (lehendik errefusarena dago).

Beste puntu batzuk aztertzen

Beste puntu batzuetan ere gaikako edukiontzi gehiago jartzea aztertzen ari dira Udaletik. Horietako puntu bat, Arritxulo bidea da (Behemendiren edukiontzi zegoen gunea) edo zonalde horretako herritarrei zerbitzua emango dien beste gunea bat jartzea. Herri Kontseiluak horren beharra azpimarratu die. Kamioia nola molda daitekeen proba egitekotan geratu ziren, arazo handiena errepidea inguratzen duten zuhaixkek sortu dezaketela adierazi baitzuten. Herri Kontseilutik oztopo hori gainditu daitekeela esan zitzaion, Udalaren ardura dela errepidea eta inguruko zuhaixkak moztuta eta garbi mantentzea. Hori ezin dela aitzakia izan inguruko biztanleei zerbitzua ez emateko.

Bestalde, Tximistarriko gunea

indartu beharrean, Buena Vistakoa bistaratzea da Udalaren asmoa (bost edukiontziak daude bertan).

Arritxulo bideko zabor ontzia kenduta

Maiatzean, Arritxulo bideko zabor ontzia kentzea proposatu zion Udalak Herri Kontseiluari. Honek arrazoikoa ikusten zuela adierazi zuen, baina baita gaikako bilketa bultzatu eta edukiontzi gehiago jartzeko beharra adierazi ere. Halaxe azaldu dute Herri Kontseiluko kideek: «Behemenditik eta Donostiako Udaletik maiatzean jakinarazi ziguten, hainbat salaketa tarterko, Arritxulo bideko zabor ontzia kentzea egokia iruditzen zitzaieela (gainera, Behemendiren zabor ontzi guztiak urtebeteren bueltan kentzekoak dira). Hori horrela, Herri Kontseiluak adierazi zuen ondo ikusten zuela kentzea, ingurua zabortege bat bihurtzen ari zelako. Aldi berean, Udalari adierazi zitzaion zerbitzua ordezkatu egin

behar zela, bertako bizilagunek hondakinak norabait bota behar dituztelako eta gainera, gaikako bilketa egitea ahalbidetu behar zela».

Honen guztiaren emaitza izan da Igeldon egindako bilera.

Organikoa biltzeko edukiontziak ere badaude

Igeldoko lau gunetan, hondakin organikoa jasotzeko edukiontziak jarri zituen Donostiako Udalak maiatzean. Zehazki, honako lau puntutan jarri dituzte: Iturrietan, Kaxkoan, Buena Vistan eta Leku Ederren. Erabili nahi duenak txartela eskatu behar du eta etxera bidaltzen dute ondoren. Txartela eskatzeko edo informazio gehiagorako, hona deitu behar da: 943481000.

Organikoa poltsa konpostagarrietan bota behar da derrigorrez. Udaletxeak herritarrentzako eskuragarri jartzen ditu poltsa horiek hainbat eraikin publikotan (kultur etxe eta kiroldegietan, besteak beste).

Herritarrei arduraz jokatzeko deia

Maiz ikusi izan dugu zabor pilaketak sortzen direla herriko puntu ezberdinetan, herritar batzuk nahi dutena eta nahi duten lekuan uzten dutelako. Herri Kontseiluak gogorarazi nahi du, hasteko, hondakinak bereizi egin behar direla eta ondoren, hondakin jakin bakoitzak dagokion lekuan utzi behar dela. Eta kontenedoreetan utzi ezin daitekeena, Garbigunera eraman behar dela.

Altzari handiak, hiru egunetan

Bestalde, altzari handiak ateratzeko hiru egun daude Igeldon: astelehena, asteazken eta ostiral (21:30-22:30). Zalantzak izanez gero, deitu: 943 48 10 38.

Gida komertziala abuzturako etxeetan egotea espero da

Oraindik badago parte hartzeko aukera. Azken eguna: uztailak 24.

Herri Kontseilua Igeldoko negozio eta komertzioak biltzen dituen gida bat osatzen ari da. Azaldu duenez, aspalditik izan du horrelako gida bat osatzeko helburua eta orain, Covid-19aren ondorioz sortu den eta sortuko den egoera ikusita, inoiz baino garrantzitsua go ikusten du bertako eta bertako-

en ekonomia bultzatzeko beharra. Beraien aurreikuspenen arabera, abuzturako etxeetan egongo da.

Denetariko negozioak

Gida horretan, denetariko negozio eta zerbitzuak azalduko dira Igeldon bertan daudenak edo igel-
doarrek herritik kanpo dituztenak.

Igeldotartzat hartuko dira Igeldon jaiotakoak, bizitakoak edo lan egiten dutenak. Bertan irgartzea doakoa da.

Nahi duenak oraindik badu bertan azaltzeko aukera. Harremanetan jarri behar da uztailak 24 baino lehen: 943313030 / 606311734. edo herrikontseilua@igeldo.eus.

Martxan da herriko whatsapp taldea

Maiatzaz geroztik, martxan da herriko whatsapp taldea. Herri Kontseiluak sortutako taldea da herriko zerbitzu eta eskaintzen informazioa zabaltzeko helburuarekin; herritarrak ahalik eta informatuen edukitzeko. Talde horretan ezin du inork idatzi, informazioa jasotzeko besterik ez da. Momentuz, 276 herritar daude taldean. Norbaitek interesa izango balu eta taldean sartu nahiko balu, Herri Kontseiluarekin harremanetan jartzeko eskatu dute: herrikontseilua@igeldo.eus edo 943313030/606311734.

Zerbitzu eskasia agerian uzten duen txostena aurkeztu da

Egungo Herri Kontseiluak urte hasieran konpromisoa hartu zuen Igeldoren errealitatea agerian jarri eta orain artean Donostiako Udaletik jaso duen zerbitzu eskasia edo «utzikeria» plazaratzeko.

Hori horrela, txosten bat prestatzeko asmoa azaldu zuen eta herritarrei laguntza eskatu zien Igeldoko txoko guztietara iristen ez zelako. Jakinarazi dutenez, txostena prestatu dute, herritarren ekarpenekin batera, eta erregistroan aurkeztu dute ekaina hasieran. Udal ordezkarierei ere bidali diete.

25 eskaera

Dokumentu honetan, 25 eskaera bildu dituzte. Dena dela, ez direla igeldotarrok dauzkagun eskaera bakarrak nabarmendu dute: «Gehiago ere badaude, noski, eta batzuk lehentasun gehiago dute beste batzuk baino. Hala ere, hauek aurkeztea erabaki dugu, lehendik ere Herri Kontseiluak eta herritarrek udaletxean eskatuak izan direlako eta behar bezala erantzuteke jarraitzen dutelako».

Txosten osoa weborrian ikusi daiteke: igeldo.eus.

Ikasturteari ezohiko agurra

Igeldoko eskolan ekainaren 19arekin bukatu zen ikasturtea. Ezohiko ikasturtea. Eta agurra ere halakoxea izan dela adierazi dute Eskolako kideek: «Normalean, kurtso bukaeran jaialdia eta bazkaria egiten ditugu. Aurten, Covid-19a dela eta, Hezkuntzatik ez digute ezer antolatzen utzi eta gurasoek, eta gelaka, antolatu

dituzte agurrak. Beraz, ezberdina izan da».

Horrez gain, nabarmendu dute azken kurtsoak behar bezala ezin agurtu izanarekin penatuta daudela: «Pena gehien eman diguna, hainbeste urte gurekin egon eta betiko doazen ikasleak, Lili, Teo, Malen, Iñaki, Luka, Itxaso, Julia eta Aiora, ezin behar

bezala agurtu izana».

Irailean lasai hasteko esperantzaz

Datorren ikasturteari begira, irailean lasai hasiko direla uste dute, «gure ikastetxean ditugun baldintzak onak baitira bai espazio aldetik baita kopuru aldetik ere», diote.



Betiko formatuan ez izan arren, 6.mailako ikasleei egin zieten jaialdi moduko bat agurtzeko. Argazkian: Itxaso, Aiora, Julia, Lili, Malen, Luka eta Teo. Iñaki falta da.

Guraso eta familiak ez dira geldirik egon

Covid-19ak sortutako egoerara egokitu egin behar izan dute guraso eta familiak ere, eta saiatu dira ahal ziren ekimenak aurrera eramaten. Ikasturte bukaerako jaialdiari dagokionean, ez dute ohiko agur jaialdirik egin, baina gurasoak ez dira geldirik egon. Agurrak antolatu dituzte gelaka eta ekainaren 18an, 6.mailakoei ere egin zieten jaialdi moduko bat, agurtzeko.

Erronkei erantzuten

Eskolako komunitate osoaren arteko harremanari era ludikoan eusteko helburuarekin, Erronkak martxan ekimena jarri zuten abian Eskolatik, eta bidalitako erronkak egiten aritu dira familiak. Astero, erronka ludiko bat bidaltzen zuten

eta nahi zuten familiek parte hartzen zuten grabatutako bideoak edo ateratako argazkiak bidaliz.

Horrez gain, ETB 3ko Erronkan saioan ere parte hartu zuten ikasle batzuek. Txorimalo bat etxean egiteko erronka burutu zuten ikasleek eta gailera bat eskuekin ukitu gabe ahora eramateko erronka luzatu zieten ikasleek saioko aurkezleei. Nola egin behar zen ere erakutsi zieten. Ikusteko aukera dago eitb.eus weborrian, Erronkan atalean sartuta.

Gau Beltzaren inguruko ikastaroa

Begi bistakoa da azken urteetan Halloweenak Igeldoko eta Euskal Herriko herri gehienetako umeen-

gan piztu duen interesa. Hori horrela, azken urteetan, hainbat gurasok antolatuta, Gau Beltzak egin dira Igeldon, ospakizunari bertako kutsua ematen saiatuz.

Guraso Elkartetik azaldu duteenez, egoeraren aurrean nola jokatu ez da erraza eta kezka ere sortzen die batzuei. Dirudenez, egoera hau ez da Igeldoko kontua bakarrik eta UEUK ikastaroa antolatu duela jakin dute. Elkartetik, parte hartzeko deia luzatzen diete gurasoei edo interesa duten herritarrei Igeldorako lagungarria izan daitekeela iruditzen baitzaie. Ikastaroa irailaren 4ean izango da (6 ordukoa). Izena emateko: www.ueu.eus // Udako ikastaroak.

Ireki dute denda

Kooperatibaren salmenta guneak uztailaren 17an ireki zituen ateak. Bertan, denetariko produktuak daude erosgai eta herritar guztiei irekia da.

Poza eta ilusioa sumatzen dira azken egunetan igeldotar askoren artean. Azkenean, hainbeste lan egin ostean, lortu dute Kooperatibaren salmenta gunea irekitzea. Uztailaren 11n egin zuten inaugurazio ekitaldia eta 17az geroztik, zabalik dago denda. Bertan, denetariko produktuak daude erosgai: barazkiak, frutak, kontserbak, esnekiak, ogia, edaria, etxeko produktuak, erremintak, pentsua...

Orri Informatiboa ere izan zen inaugurazio ekitaldian eta bertan ikusitakoa bildu du argazkien bidez ondorengo orrietan. Oraindik bertara gerturatzeko aukerarik izan ez duenarentzat, hortxe aurrerapena.

Edonorentzat irekia

Denda herritar guztiei irekia da, beraz, edonork egin ditzake erosketak. Hiru erabiltzaile mota egongo dira: bazkideak, erosle laguntzaileak eta erosleak. Bazkide eta erosle laguntzaileek kuota ordainduko dute eta deskontuak izango dituzte.

Goiz eta arratsalde irekita

Ordutegiari dagokionean, goiz eta arratsalde egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera. Goizez 09:30-13:30 bitartean; eta arratsalde 17:00-20:00 bitartean. Larunbatean, berriz, goizez irekiko ditu ateak: 09:30-13:30.

Hiru langile ariko dira dendan lanean: Amador Criado, Jexux Albeniz eta Estibalitz Arbelaitz.

Denda bakarrik ez

Kooperatibako bazkideek argi adierazi duten bezala, orain denda jarri dute martxan, baina Igeldoko Kooperatiba edo IKO, denda bat baino gehiago da.



iko

*denda bat baino gehiago...
mucho más que una tienda*

Bihotzetik sabelera: IKO, denda bat baino gehiago

20 urteko bidai luzearen ondoren, Igeldoko Kooperatibak edo "Sindikatuak" ateak zabaldu ditu berriro, uztailaren 17an. 112 bazkide bultzatu dute etorkizunera begira sortu den herri-proiektu dinamiko, erronka zale, herrikoj, dotore eta hurbil hau. **IKO** du izena eta ilusioa eta auzo-lana oinarri-oinarrian ditu, herriak herriarentzat sortua delako, bihotz-bihotzez, eta gure sabelak asetzen hasiko bada ere, begirada etorkizunean ipini du, ildo estrategiko zabala eta dinamikoa bere izenean baititu. Eta izena duena, da. Bai horixe!

Horregatik lan handia egin dugu, izena aukeratzen. **IKO**k asebetete ditu gure baldintzak: euskalduna, gurea eta bakarra, **Igeldokoa**, ausarta, laburra, indar handikoa. Bere logoa ikusgai jarri da, Bentalegreko pelukeria zaharraren parean, **IKO**-dendak ateak zabaltzearekin batera. Astetxo bat lehenago bazkideek ikusteko aukera izan zuten, auzo-lanean eraikitakoaren fruitua. Fruta, barazkiak, lanabesak, pentsua, garbitzekoak... kooperatibaren izaerarekin bat datozen produktuak, bertakoak, ekologikoak, jasangarriak eta herritarren beharra asetuko dutenak.

Baina **IKO** denda bat baino gehiago da. Ekainaren 28an, bazkideek egin zuten azken batzarrean argi ikusi genuen. **IKO**-festa, **IKO**-laborategia, **IKO**-turismoa, **IKO**-azoka... ilusioa, ideiak, etorkizuna. Indar eta esfortzu handiarekin sortu dugu, eta hemendik aurrera ere, mimo handiz zainduko, osatuko eta garatuko dugula ziur gaude; guztion artean, orain arte egin dugun gisan.

Uztailaren 17tik aurrera, beraz, zerbitzu berria dugu herrian, nahi duenari zabaldua. Itzultzeko gogoa biztuko digun topagunea izango delakoan gaude. Eta hala bada, proiektu honetan interesa duenak izena eman dezake, dendan bertan galdetuz, edo junta kideren bati eskatuz. On egin eta gozatu **Igeldoko Kooperatiba**.

LANGILEAK GOGOTSU



AMADOR CRIADO (45 urte, Igeldo)

Kooperatibako bazkidea naiz eta oso proiektu interesgarria iruditzen zaidalako.

Uste dut proiektu honi gauza asko eskaini ahalko dizkiodala. Hilabete batzuk daramatzagu lanean eta dendaz aparte, nekazaritzari loturiko beste proiektu batzuk sortzeko ideiak darabilzkit buruan. Azken batean, niretzat proiektu hau ez da denda bakarrik, zerbait zabalagoa dela iruditzen zait, herriarentzat zerbitzu bat. Eta ikusiko dugu hemendik aurrera nola garatzen den.

Zergatik aurkeztu zinen? Zer duzu eskaintzeko?

JEXUX ALBENIZ (48 urte, Igeldo)

Kooperatiba irekitzeko asmoa zegoela ikusi nuenetik, ilusio handia egiten zidan proiektu honek eta apuntatzea erabaki nuen. Aukeratu nindutela jakitean poz handia hartu nuen.

Ilusio handiarekin nator, eta nire ekarpena esperientzia izango da. 19 urterekin hasi nintzen lanean supermerkatu batean, harakina izan naiz eta komertzio munduko esperientzia dut eskaintzeko.

ESTIBALITZ ARBELAITZ (40 urte, Oiartzun)

Proiektu honen berri bertan bizi den auzotar baten bidez jakin nuen eta arrunt proiektu polita iruditu zitzaidan. Herri txiki bateko denda bat, bertako produktuak eta nekazaritza bultzatuko duena. Ezagutzen ditut antzeko proiektu batzuk, Oiartzundik nator eta han ere bada antzeko bat eta aukera polita ikusi nuen holako proiektu batean parte hartzeko.

Egia esan oso gustora etortzen naiz, jendearen harrera oso ona da, asko zaintzen gaituzte eta antolaketa maila ere izugarria da. Nik eskaini nezakeena, bere garaian esan nuen moduan, nekazari ingurutik natorrela, baserrikoa naiz eta ikuspegi hori ere eman nezake. Bestalde ere, biologia mundutik datozen ezagutzak eskaini nitzake eta baita ekologia aldetik dauden ikuspuntu batzuk.

INAUGURAZIOA IRUDITAN





Denda ikusi ondoren, aperitiboa

Inaugurazio ekitaldia oso polita izan zen. Jendea pixkanaka inguratu zen eta modu lasaiean denda ikusteko aukera izan zen. Juntakide batzuk aritu ziren talde txikietan jendeari esplikatzeko dendak nola funtzionatu-ko duen eta gauza bakoitzaren txokoa zein izango den. Jendearen inpresioa oso ona izan zen orokorrean, denek komentatzen zuten ze polita eta txukuna dagoen, eta denak gogoz zeuden denda ireki eta konpra egiteko. Ondorenean, aperitibo txiki bat ere izan zen parkinean eta bazkide ezberdinen artean hizketan aritzeko aukera polita! Irekieran eta eguerdi partean, etxefero batzuk ere izan ziren, askori ileak puntan jarri zizkietenak, festen falta somatuz...



Jaietako datetan hainbat ekintza egin dira

Jaiak iritsi eta aurten ez da suziri eta danbaterokirik izan. Ez eta hainbeste desio genituen bestelako ekintzarik ere. Covid-19ak gizarte osoa hankaz gora jarri du eta jaiak ere erabat baldintzatu ditu. Jai Batzordeko kideek maiatza erdialderako hartu zuten jada jaiak betiko formatuan ez antolatzeko erabakia.

Esan bezala, jaietako ekintza esanguratsuenak ez dira egin, baina formatu txikiko ekintza ezberdinak egin dira. Esaterako, eskeko koadrila aurten ez da etxez-etxe kantuan eta dantzan aritu, baina San Juan bezperan eta Santa Ixabel egunean elkar-tu dira. San Juan bezperan, plazan bertsoak bota zituzten eta dantza egin ostean, elkarrekin afaldu zuten. Santa Ixabel egunean aldiz, elkarrekin bazkaldu zuten eta eguraldi txarra zegoenez, frontoian dantzan aritu ziren.

San Pedro egunean, norgehiagoka

San Pedro egunean ere izan zen ikuskizunik plazan. Etxebeste II eta Olasagasti IIaren arteko norgehiagokak ikus mina piztu zuen eta herritar dezente inguratu zen plazara. Korrikalariak ere izan ziren: Galarraga (Etxebeste IIaren bikote) eta Enbil (Olasagasti IIaren bikote) hain zuzen ere. Lauak bikain aritu ziren eta giro ederra jarri zuten plazan. Azkenean, Olasagasti II eta Enbil nagusitu ziren.

Arratsaldean ere izan zen mugimendua herrian, trikitilari-iez lagunduta hainbat lagun aulki jokoan aritu ziren.



Suge gorriak, Igeldon


Uztaileko lehen astean argazki bana bidali didate bi igeldoarrek. Suge bana ikusten da argazki bakoitzean. Bi suge-espezie, bi toki, bi argazkilari eta sugearen patua bakarra: bietan sugea hilik.

Izan ere, "sugeek beldurra eragiten dute, eta horregatik hiltzea hobe, badaezpada ere". Horixe argazkilarietako baten aitormena. Eta egia da, beldurra eragiten dute. Eta beldurra, jakina, sentimendu irrazionala da, eta menderatzeko zaila. Oso aintzinetik gure geneetan dugun beldurra da, nonbait, jaiotzetik bertatik jaso eta handitu ahala gainditzen ez duguna; horren aurrean, hobe arriskurik ez hartu: alde egin!

Igeldon eta Euskal Herrian, pozoitsuak diren suge

bakarrak suge gorriak dira; hau da, minik ematekotan, berak emango liguke. Baditugu beste animalia eta landare pozoitsuak ere (erleak, liztorrak, hagina..). Pozoitsu izateak ez du esan nahi, ordea, gu hiltzeko deseatzten daudenik. Ahal duten guztietan, ihes egingo dute. Izan ere, haiek ere geneetan txertatuta dute nonbait, gizakiarekiko beldurra.

Sugea ikusita, nola jakin suge gorria den ala ez den? begi-nini bertikalak dituzten bakarrak dira. Erronbo formako burua dute gainera (suge biperikarak (Natrix maura) badu erronbo formako burua ere, baina begi nini borobilak ditu, ez da pozoitsua. Uraren inguruan agertu ohi da azken hori).



Sugeari begietara begiratzeko gogorik ez baduzu, alde egin, beldurra ematen dizun beste edozerrekin egiten duzun moduan. Alde egiterik ez baduzu, hankarekin gogor jo lurrean, bera beldurtu dadin eta ihes egin dezan (gorra da, baina hankek lurrean sortuko dituzten uhinak somatuko ditu). Eta nahita edo nahi gabe zirikatatu baduzu, eta bere beldurrari aurre eginez zuri kosk egitea erabaki badu, joan sendagilearen-

gana eta sendabidean jarriko zaitu (bere pozoia ahul samarra da, eta sendabidea du).

Ezagutzen ditut zakurren beldur direnak; ez ordea, horregatik zakurrak hiltzen dituztenak. Saia gaitezen sugeekin ere beste modu batera jokatzeko. Gure baratzeak eta ekosistemak, orokorrean, eskertuko dute.

Txintxu, alaba

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak urrian eta abenduan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).